

Gradu Amaierako Lana defendatzeko jarraitu beharreko urratsak

Matrikula

- Noiz?
Ikasturtean zehar, **irailaren 10era arte**.
- Baldintzak:
Ikasketa plana amaitzeko eskatzen diren irakasgai guztiak gaindituta izatea.

GRALaren esleipena

- Baldintza: **162 ECTS** eginda izatea.
- Lana esleitzeko prozedura:
Hiru modalitate (ikus arautegia).

GRALaren defentsa

- Noiz? Bi deialdi: **EKAINEKO** (azarotik uztaiera) eta **IRAILEKO**
- Nola?
 - Ikasleak egin behar du defentsarako eskaria GAURren bidez.
 - Zuzendariak eskaria onartuko du, eta zuzendariaren txostena (I. eranskina, INTRANETen eskura daiteke) igoko du GAURera.
 - Defentsaren data adostu ondoren, ikasleak erreserbatuko du Atezaintzan.
 - Ikasleak defentsa eskaria aurkeztuko du Idazkaritzan, lana defendatzeko aurreikusitako eguna baino astebete lehenago.

ADDIk bi mezu elektroniko bidaliko ditu:

- Bata ikasleari: ADDIra igo dezan GRALa.
- Bestea, zuzendariari: esateko bere ikasleak GRALa igoko duela.

Ikasleak GRALa ADDIra igotzen duenean, zuzendariak beste mezu bat jasoko du, esteka bat izango duena GRALean sartzeko, zuzendariak begiratu dezan ea dokumentua den adostutakoa. Zuzendariak **PROZESUA BALIOETSI** beharko du (onetsi edo ezetsi).

(*) Aukeratu **beti** "lizentzia eman" botoia. (Horrekin banaketa-lizentzia ematen da ADDI akademikoan, ez ADDI Publikoan).

- ONETSI: GRALa ADDI akademikoan geratuko da eta ikasleak berrespen mezu bat jasoko du.
- EZETSI: ikasleak mezu bat jasoko du, lana ezetsia izan dela eta akatsak zuzendu behar dituela jakinaraziko diona.

Epaimahaikideek mezu elektroniko bat jasoko dute, esango diena GRALa ikusgai dagoela ADDI akademikoan.

Azkenik, epaimahaiak txostena egingo du (II. eranskina, INTRANETen eskura daiteke), eta Idazkaritzara bidaliko du. Gero, akta sinatuko dute GAUREn.